

7.– EGAZTIEN FAMILIA (II)

KALAOAK

Txori au aundia eta piku aundiduna da. Enbor aundi baten zulo aundi bat aurkitzen dau eta emea sartzen da ara. Arrak kanpotik zulua zarratu egiten dau lupetzez edo zulo txiki bat itzi ameari jaten emoteko umeak atera artean eta gero umeai be bai. Umeak egaz egiteko gai diranean, lupetzezko estalki ori kentzen jako.

KUKUAK

Errez ezagutzen da “kuku” kantutik udabarrian, baiña ikustea ez da erreza.

Emeak beti txorien abiak billatzen dauz, txepetxak naiz txamillotxak egindakoak, eta euren arrautzen artean berea be ipinten dau. Orretarako antzeko arrautzak billatzen alegintzen da.

Amalau eguneko beroaldiaren ondoren urteten dau kukutxuak, besteak baiño lentxuago. Kukutxuak bota egiten dauz abitik beste arrautzak eta bakarrik gelditzen da. Guarso barriak emoten dautsoe, besteentzat ustez, dakarren janaria eta bakarrik urtengo dau bere benetako gura-soak iñoz be ezagutu barik.

PINGUINOAK

Antartikoan otz aundia dago eta beti edurra. Bizi ete leiteke an egaztirik? Bai izotz-muiño baten barrenean errez aurkituko dozu egazti-taldea, pinguinoak dira: Burua ori-baltza, aundiak... Ez dabe egazik egiten, euren egoak txikiak diralako eta eurak ain aundiak.



Leku epelagoetan be bizi dira, eundakako taldeetan. Jateko arrain-billa ibiltzen dira tikili-takala.

Neguaeren asieran egiten dabez arrautzak, bana, eta oingaiñetan eroaten dabez, sabelagaz berotzen dabezela. Orretan alkarrari lagundu be egiten dautsoe.

Neguan jaioten dira txitak, benetan politik, gero seas-ka baten zaintzen dabez euretariko batzuk.

EGALPERRA (ABESTRUZA)

Ganbelu egazti biurtua ei da. Leku legorretan bizi da, ego laburrak dauz, beatzak bi baiño ez.

Auxe esan izan da: Arerioa datorrenean burua arepean sartzen dauala, ikusten ez dana izan be ez dala uste iza-nez.

Arrautzak lurreko sakan baten izten dauz, askorenak batera, 30 arrautza. Arrak ateraten dauz umeak baiña beroaldian (eguerdian) arrautzak bakarrik izten dauz arez estalduta, txakalak jan ez dagiezan. Gaiñera ertzetako arrautzak uste-lak izaten dira... Sei aste igaro ondoren urteten dabe umeak bakoitxa kilo batekoak.

Arerioa datorrenean iges egiten dau umeak.

**Olazar'tar
Martin'ek**